

SMG ZERBITZUAK

ZERBITZU-BALDINTZAK

Eguneratze-data: 2018ko martxoa

Zerbitzu-baldintza hauetan eta SMG Pribatutasun-gidalerroetan («**Baldintzak**»), Service Management Group, LLC taldeak eta haren bazkideek («**SMG**» edo «gu») eskaintzen dituzten webgune, zerbitzu eta aplikazioak, tartean mugikorretarako aplikazioak (guztiak batera, «**SMG zerbitzuak**») zer baldintzatan atzi ditzakezun azaltzen da. Zerbitzu horiek guztiek argitaratuta, estekatuta edo aipatuta dituzte pribatutasun-gidalerro hauek.

SMG zerbitzuak atzitu eta erabili aurretik, irakurri arretaz baldintza hauek, SMGren eta zure arteko legezko hitzarmen bat baitira.

SMG ZERBITZUREN BAT ERABILTZEN BADUZU, ONARTU EGINGO DITUZU BALDINTZA HAUEK, ETA HORRETARAKO GAITASUNA ETA LEGEZKO ESKUMENA DITUZULA BERRETSIKO. ZURE ENPRESAREN IZENEAN ERABILTZEN BADITUZU SMG ZERBITZUAK, ZURE ENPRESAREN ETA SMG-REN ARTEKO HITZARMEN GISA HARTUKO DA BALDINTZA HAUEN ONARPENA, ETA ZURE ENPRESA BALDINTZA HAUEK BETETZERA BEHARTZEKO AGINPIDEA DUZULA BERMATUKO DUZU.

OHAR GARRANTZITSUA: Baldintza hauetako xedapenek zurekiko dugun erantzukizuna mugatzen dute, eta gatazkak banako gisa konpontzera behartzen zaituzte, arbitraje lotesle eta behin betikoaren bidez, eta ez talderen bateko kide edo ordezkari gisa. Informazio gehiago lortzeko, ikusi behean dauden «**KONTRATUAREN BALIOZKOTASUNA, BERME-EZESPENA ETA ERANTZUKIZUNEN MUGAK**» (7. atala) eta «**GATAZKEN KONPONKETA**» (9. atala).

ZERBITZU-BALDINTZA HAUETAN ETA SMG PRIBATUTASUN-GIDALERROETAN JASOTAKO BALDINTZA GUZTIEKIN ADOS EZ BAZAUDE, EZ ERABILI SMG ZERBITZUAK.

1. BALDINTZEN ALDAKETAK

Web-orri honen goialdean jaso da baldintza hauen eguneratze-data. Eginbide gehiago gehitu ahala, baliteke baldintza hauek aldatzea. SMGk edonoiz aldatu eta egunera ditzake baldintza hauek. Aldaketa ororen menpe zaude; hortaz, komeni da aldian-aldian orri honetara etortzea baldintza hauek berrikusteko. Baldintza eguneratuak argitaratu ondoren SMG zerbitzuak erabiltzen jarraitzen baduzu, onartu egingo dituzu baldintza horiek. Baldintza eguneratuek ordeztu egingo dituzte baldintzekin erlazionatutako hitzarmenak, oharrak edo adierazpenak, baina aldaketak ez dira aplikatuko atzeraeraginez.

2. BALDINTZA OSAGARRIAK

Baliteke SMG zerbitzuek edo haien bidez eskainitako zerbitzu jakin batzuei (esaterako, mugikorretarako aplikazioak, zozketak, eskaintzak, lehiaketak eta bestelako zerbitzuak) zehaztaperen eta baldintza osagarriak aplikatzea; zerbitzu horiekin batera aurkeztuko dira baldintza osagarri horiek («Baldintza osagarriak»). Zerbitzu horiek erabiltzeko, baldintza osagarriak onartu behar dituzu. Baldintza hauen osagarri gisa aplikatuko dira baldintza osagarriak. Baldintza osagarrietako xedapenen bat ez badator bat baldintza hauetako xedapenen batekin, baldintza osagarriak baldintza hauetako xedapen inkoherenteari nagusituko zaizkio, baina inkoherentzia horri dagokionez baino ez.

3. PRIBATUTASUNA/SEGURTASUNA

SMG zerbitzuak erabili aurretik, irakurri arretaz SMGren Pribatutasun-gidalerroak SMGk SMG zerbitzuen bidez zer datu pertsonal biltzen dituen, nola prozesatzen dituen eta norekin partekatu ditzakegun jakiteko. Hemen aurki dezakezu SMGren Pribatutasun-gidalerroen kopia bat:

4. SMG EDUKIA

SMG zerbitzuak —besteak beste, SMG zerbitzuetan edo haien bidez emandako informazioa, grafikoak, irudiak, material grafikoa, testua, bideoklipak, datu-konpilazioak, softwarea, audioklipak, markak, zerbitzu-markak, erregistroak, merkataritza-izenak eta bestelako edukia (guztiak batera, «**SMG edukia**») SMGrenak eta gure bazkide, kide, lizentzia-emaile edo ordezkariak-enpresenak dira, eta Ameriketako Estatu Batuetako eta atzerriko copyright-legeen, marka eta patenteen legeen eta bestelako legeen babespean daude. Lizentzia mugatuari buruzko atalean edo lege aplikagarrian ezarritakoa salbu, copyrightak, markak, bestelako jabetza intelektuala eta SMG zerbitzuak ezin dira erabili, kopiatu, bikoiztu, saldu, birsaldu, atzitu, aldatu edo ustiatu, ez osorik, ez partzialki, ezein helburutarako, aurretik gure baimenik jaso ez baduzu idatziz. SMG edukia baimenik gabe erabiliz gero, baliteke copyright-legeak, marken legeak eta bestelako legeak urratzea.

Baldintza hauek onartzen badituzu (baita SMG eduki zehatzarekin erlazionatutako zehaztaperen eta baldintza osagarriak ere), SMGk lizentzia pertsonala, ezeztagarria, ez-esklusiboa, besterenezina eta mugatua emango dizu (baina ez beste inori emateko eskubidea) SMG zerbitzuak atzitzeko eta erabiltzeko eta SMG edukia zeuk soilik erabiltzeko eta baldintza hauen pean deskargatzeko, inprimatzeko eta/edo kopiatzeko. Aitortzen duzu ez duzula jaso (eta ez duzula jasoko) SMG zerbitzuetan jasotako sekretu komertzialen eta jabetza intelektualaren inguruko lizentziarik, eta haiek ez zaizkizula ezagutarazi (eta ez zaizkizula ezagutaraziko). Aitortzen duzu SMGk zerbitzuen orriak egiteko sortzen duen HTML kodea SMG-en copyrightak babesten duela. Baldintza hauetan berariaz adierazita ez dauden eskubide guztiak SMGrenak izango dira.

Onartzen duzu, SMGk aurretik idatzizko baimena eman ezean, ez duzula honelakorik egingo:

- a. SMG edukia beste lanen batean sartu (adibidez, zeure webgunean), edo SMG edukia publikoki edo komertzialki erabili;
- b. SMG edukiaren parte izan daitezkeen copyrightari, markei edo jabetza intelektualeko eskubideei buruzko oharrak aldatu; edo
- c. SMG zerbitzuetako baten orri nagusia ez den beste orri baterako esteka sortzea.

SMG zerbitzuetan edo haien bidez aurkezten diren markak, logotipoak eta zerbitzu-markak (alegia, «markak») SMGrenak edo hirugarrenenak dira. Debekatuta duzu aurretik SMGren edo hirugarrenaren idatzizko baimenik gabe markak erabiltzea. SMG edukia erabiltzeko SMGren baimena lortzeko moduari buruzko informazioa nahi baduzu, bidali mezu elektronikoa bat privacyofficer@smg.com helbidera.

5. SMG ZERBITZUAK ERABILTZEA

- 5.1. Egokitasuna: SMG zerbitzuak ez daude pentsatuta datu pertsonalak prozesatzeko baimena emateko herrialdeko legezko gutxieneko adina betetzen ez duten hurrek erabiltzeko. Baimena emateko zure herrialdeko adina betetzen ez baduzu, ez erabili SMGren zerbitzuak.
- 5.2. Zure kontua: Baliteke kontu bat («**kontua**») sortu behar izatea SMG zerbitzuen eginbide jakin batzuk erabiltzeko. Onartzen duzu zuri buruzko informazio zehatza, unekoa eta erabatekoa eman, mantendu eta eguneratuko duzula. Onartzen duzu ez duzula ezein banako edo erakunderen izenean jardungo, ezta inor iruzurrez ordezkatzeko ere; esaterako, beste pertsona baten erabiltzaile-izena, pasahitza edo kontuko bestelako informazioa erabiltzea, edo beste pertsona baten izenaz, antzaz, ahotsaz, irudiaz edo argazkiaz baliatzea. Halaber, onartzen duzu berehala jakinaraziko diguzula, privacyofficer@smg.com helbidera idatzita, norbaitek zure baimenik gabe erabili badu zure erabiltzaile-izena, pasahitza edo kontuko bestelako informazioa, edo SMG zerbitzuetan beste segurtasun-urraduraren bat antzematen baduzu.

Kontu bat sortzen baduzu, onartu egingo duzu SMG beharbada zurekin harremanetan jarriko delakontua aktibatzerakoan adierazi duzun helbide elektronikoa erabilia.

Ez utzi besteei zure kontua erabiltzen. Zeu zara kontuaren erabilera guztien arduraduna; tartean, zure konturako sarbidea jaso dutenek egiten dituztenena.

5.3. Zure erantzukizunak:

SMG zerbitzuak legezko helburuetarako soilik erabiliko dituzula onartzea. Onartzen duzu SMG zerbitzuak legezko helburuetarako soilik erabiliko dituzula. SMG zerbitzuak ez dituzu erabiliko SMGren zerbitzariak edo sareak kaltetu, desgaitu edo gehiegi zama ditzakeen ezer egiteko, ezta besteek SMG zerbitzuak erabiltzea eragozteko ere.

SMG zerbitzuak legearen kontrako edo baimendu gabeko helburuetarako erabiliko ez dituzula onartzea. Halaber, onartzen duzu ez zarela saiatuko baimenik gabe atzitzen SMG zerbitzuak, beste erabiltzaile batzuen kontuak edo SMGren ordenagailu-sistemak edo sareak hackeatuta, pasahitzak lapurtuta edo beste edozein erataraz. Aurretik esandako ezer mugatu gabe, onartzen duzu ez duzula honelakorik egingo (eta ez duzula hirugarrenik bultzatuko edo baimenduko honelakoak egitera):

- a. SMG zerbitzuak edo SMG edukia (osorik edo partzialki) kopia, aldatu, egokitu, itzuli, deskodetu edo atzitu, ezta haietan alderantzizko ingeniariak aplikatu ere;
- b. SMG zerbitzuetan edo SMG edukian copyrightari, markari edo jabetza-eskubideei buruz dauden oharren kendu;
- c. gure zerbitzuek edo eginbideek dituzten eta SMG edukia erabiltzea edo kopiatzea saihesten edo mugatzen duten edo gure zerbitzuak edo SMG edukia erabiltzeari mugak jartzen dizkieten segurtasun-ezaugarriak edo iruzurra saihestearekin erlazionatutakoak saihestu, desgaitu edo oztopatu;

- d. zerbitzuak bidegabe erabili, nahita birusak, troiarrak, harrak, bonba logikoak, spywarea, malwarea edo bestelako material gaiztoa edo teknologikoki kaltegarria sartuta;
- e. SMG zerbitzuren bat atzitzeko, berreskuratze edo indexatzeko robot edo armiarma bat, webguneak bilatzeko/berreskuratze aplikazio bat edo beste gailu, prozesu edo baliabide automatizaturen bat erabili;
- f. SMG zerbitzuak edo haien eginbide edo funtzioak errentan eman, alokatu, maileguz eman, saldu, beste inori eman, esleitu, banatu, argitaratu, transferitu edo beste moduren batera hirugarrenen eskura jarri, arrazoia edozein dela ere, hala nola SMG zerbitzuak sare batean ikusgai jarri, aldi berean gailu batek baino gehiagok atzitzeko moduan;
- g. SMG zerbitzuen parte diren webguneen inongo zatiri formatua aldatu edo markoak jarri;
- h. automatikoki, gezurraz baliatuta edo iruzurra egiteko asmoz kontu bat baino gehiago sortu; edo
- i. beste erabiltzaile bati buruzko datu pertsonalak bildu edo gorde aurretik haren idatzizko baimena jaso gabe.

SMG zerbitzuak baimenik gabe edo oker erabiltzearen ondorioak. Onartzen duzu SMG zerbitzuak erabiltzeko duzun eskubidea berehala etengo dela arau hauek urratzen badituzu, eta SMGk aukera duela SMG zerbitzuetarako sarbidea kentzeko aurretik ezer jakinarazi gabe, baldintza hauetan edo baldintza osagarri aplikagarrietan ezarritako eskakizun edo debekuak urratzen badituzu. Halaber, onartzen duzu webguneko materialen kopiak itzuli edo suntsitu egingo dituzula hala egiteko eskatzen badizugu.

Erabat debekatuta dago SMG zerbitzuak baimenik gabe edo oker erabiltzea. Egoeraren arabera, baliteke kalteen erreklamazio zibil bati aurre egin behar izatea, edo prozesu kriminal bati. SMGk eskubidea izango du legea betearazten duten erakundeei jakinarazteko baldintza hauek urratu direla edo SMG zerbitzuak baimenik gabe edo oker erabili direla. SMG zerbitzuak baimenik gabe edo oker erabiliz gero, berehala etengo da SMG zerbitzuak erabiltzeko eskubidea, eta baliteke SMGk SMG zerbitzuetarako sarbidea kentzea aurretik ezer jakinarazi gabe.

SMG zerbitzuak erabiltzearekin erlazionatutako gastu, kuota eta bestelako kostuekiko ardura (tartean testu-mezuak bidaltzeagatiko kostuak). Zeu zara SMG zerbitzuak erabiltzearekin erlazionatutako kostu, kuota eta bestelako kostuen erantzule bakarra. SMG zerbitzuak telefono adimendunean, tabletan edo beste gailu mugikorren batean atzitzen eta erabiltzen badituzu, wifi bidezko hari gabeko zerbitzua izan behar duzu, edo mugikorreko zerbitzu-hornitzaile laguntzaile bat. Baliteke zerbitzu jakin batzuetan testu-mezuak (SMS edo MMS) bidali behar izatea. Onartzen duzu zeu zarela mugikorreko zerbitzu-hornitzailearen bidez mezuak bidaltzeagatik eta datuak erabiltzeagatik sortzen diren gastu guztien erantzule bakarra. Ez dugu aparteko gasturik aplikatzen testu-mezuak bidaltzeko eskaintzen ditugun zerbitzuak erabiltzeagatik, baina baliteke mezuak bidali eta datuak erabiltzeagatiko tarifak aplikatzea. Gastu guztiak mugikorreko zerbitzu-hornitzaileak fakturatuko ditu, eta hari ordaindu behar zaizkio. Prezio-planak eta xehetasunak nahi izanez gero, jarri mugikorreko zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan. SMG ez da izango testu-mezuak berandu entregatzearen edo ez entregatzearen erantzulea, mugikorreko zerbitzu-hornitzaileak mezuak bizkor igortzearen menpe baitago haien entrega. Baliteke testu-mezuak eremu eta une guztietan erabilgarri ez egotea.

Testu-mezuak jaso nahi dituzula aukeratzea onartzearen ondorioak. Guregandik testu-mezuak jasotzea aukeratzen baduzu, gurekin zenbateko harremana duzun, mezu gehiago edo gutxiago bidaliko dizkizugu. **Testu-mezuak jasotzea aukeratzen baduzu, onartu egingo duzu SMGk agian sistema automatiko bat erabiliko duela testu-mezuak**

bidaltzeko, baita testu-mezuak jasotzeko baimena beharrezkoa ez dela ere produktuak edo zerbitzuak erosi ahal izan ditzazun.

- 5.4. Bidalketak. Baliteke SMGk noizbehinka aukera ematea erabiltzaileei SMG zerbitzuetan edo haien bidez argitalpenak, balorazioak, iradokizunak, bideo-iruzkinak, ideiak, oharrak, kontzeptuak edo bestelako informazioa edo materiala bidaltzeko (guztiak batera, «**Bidalketak**»).

Zeu zara bidalketen eta bidalketa horiek egin eta argitaratzearen erantzule bakarra (eta izango zara). Zeu izango zara copyrightak edo jabetza-eskubideak urratzeak eragiten duen kalte ororen erantzule bakarra, baita bidalketek eragiten dutenena ere. Bidalketak egiterakoan edo argitaratzerakoan, ahalik eta datu pertsonal gutxien eman beharko zenituzke, bidalketetan zuregana daramaten estekak egon baitaitezke, ematen dituzun xehetasunen arabera.

SMGra (eta/edo guk aukeratutakoei) edo SMG zerbitzuetako sailetara bidalketak egin edo argitaratzen badituzu, automatikoki bermatuko duzu zuk edo bidali duzun materialaren jabeak berariaz eman diela SMGri eta guk aukeratutakoei bidalketak (osorik edo partzialki) edozein baliabidetan (gaur egungoak nahiz etorkizunekoak) edozein helburutarako (komertziala edo bestelakoa) erabiltzeko, kopiatzeko, lizentziapean emateko (hainbat mailatan), banatzeko, lan deribatuak sortzeko eta inportatzeko eskubidea, mundu osorako balio duena, ez-esklusiboa, lizentziapean eman daitekeena (hainbat mailatan), besterengarria, jabetza-eskubiderik ordaintzea ez dakarrena, iraunkorra eta ezeztazina. Eskubide hori izanda ere, zuk ez duzu ordainik jasoko. Bestela esanda, SMGk automatikoki du zure bidalketak edonon, edonoiz, edozein baliabidetan eta edozein helburutarako erabiltzeko eskubidea (besteak beste, bidalketak kopiatu, ezagutarazi, argitaratu eta igortzekoa), baina ez dizu ezer ordainduko edo ez du zureganako betebeharririk izango. Halaber, baimena ematen diezu beste erabiltzaileei zure bidalketak atzitzeko, ikusteko, gordetzeko edo kopiatzeko, erabiltzaileen erabilera pertsonalerako. Honen bidez SMGri (eta guk aukeratutakoei) baimena ematen diozu zure bidalketak edozein helburutarako eta edonon erabiltzeko. Inola ere ezin duzu ordainketarik jaso SMG-k (edo hark aukeratutakoek) zure bidalketak erabiltzen baldin baditu. Zure bidalketa guztiak ez dira isilpekoak eta jaberik gabekoak dira.

Baliteke zure bidalketak jendaurrean ikusgai jartzea. Aitortzen duzu ez duzula espero zure bidalketak pribatu gisa mantentzea. Halaber, aitortzen duzu zure borondatez eta ardurapean egin dituzula bidalketak. Zentzuz jokatu behar duzu SMGri, SMGren bezeroei edo beste erakunde edo pertsona batzuei buruzko informazioa, iruzkinak eta bestelako edukia argitaratzerakoan. Zure bidalketak iraingarriak badira edo legezko ekintzaren bat badakarte eta beste erabiltzaile batzuek, SMGk edo hirugarrenek kalteren bat jasaten badute, baliteke zuri leporatzea legezko erantzukizuna. Bidalketaren bat argitaratzean, bidalketa zure erabiltzaile-izenarekin edo goitizen batekin lotzea aukera dezakezu, bizi zaren herrialdean aplikagarriak diren legeek besterik adierazi ezean.

SMG ez da erabiltzaileek bidalitako edukiaren legezko erantzule, ezta bidalitakoa iraingarria bada edo legezko ekintzaren bat badakar ere. SMG ez da SMG zerbitzuetan edo haien bidez argitaratutako edo bidalitako iritzi, aholku edo gomendioen erantzulea, eta ez ditu haiek baiesten. SMGk berariaz uko egiten dio bidaltzen den edukiarekin lotutako erantzukizun orori. SMGk ez ditu berresten erabiltzaileek SMG zerbitzuetan edo haien bidez argitaratzen dituzten agiriak, ezagutza, gaitasunak edo bestelako datuak. Hortaz, SMGk eskatzen dizu zentzuz prestatzeko bidali nahi duzun gutzia.

Zerbait bidaltzen baduzu, onartu egingo duzu bidali duzunak baldintza hauek betetzen dituela:

- a. egiazkoa eta zehatza da;
- b. SMG zerbitzuen gai jakin batekoa da;
- c. ez ditu urratzen hirugarrenen eskubideak (alegia, copyrightekoa, markakoa, patentekoa, literaturakoa, sekretu komertzialekoa, pribatutasunekoa, publizitatekoa, jabetzakoa, kontratukoa, etab.);
- d. ez du inor identifikatzen duen informaziorik, ezta norbaiten datu pertsonalak dakartzan informaziorik ere, aurretik ez baduzu jaso pertsona horren idatzizko baimenik;
- e. ez du egiten oinarririk gabeko adierazpenik hirugarren baten edo haren produktu edo zerbitzu baten inguruan;
- f. ez du iruzkin iraingarririk, gezurrezkorik, engainagarririk, oiesik, lizunik, pornografikorik, indarkeriazkorik, intoleranterik, sexualki espliziturik, gorrotozkorik, neurrigabekorik, mehatxuzkorik, jazartzailerik, antisozialik edo sexualki edo arrazialki iraingarririk, ezta pertsona edo erakunderen bat kaltetzen duen edo kalte dezakeela pentsarazten duen bestelako edukirik ere;
- g. ez da legez kanpoko eta ez du sustatzen edo defendatzen legez kanpoko jarduerarik halakoak egiteko asmoz;
- h. ez dago merkataritzarekin edo enpresa-munduekin erlazionatuta, eta ez du iragartzen edo salgai jartzen produktu edo zerbitzurik (irabazi-asmoz nahiz irabazi-asmorik gabe), ezta besteei ezer eskatzen ere (adibidez, dohaintzak eta ekarpenak egiteko);
- i. ez du birusik edo beste osagarri kaltegarriak, edo ez ditu bidegabeki aldatzen edo kaltetzen SMG zerbitzuak edo haiekin erlazionatutako sareak, ezta besteek SMG zerbitzuak erabiltzea eragozten ere; eta
- j. bidalitakoari nahiz edukia argitaratzeko darabiltzazun SMG zerbitzuei aplikagarriak zaizkien lege, erregelamendu, arau, gidalerro eta kontratuko baldintza guztiak betetzen ditu, baita adin-murritzapenak ere.

Aitortzen eta onartzen duzu SMGk bidali duzuna aldatzeko, kentzeko, ez argitaratzeko edo argitaratzeko eskubidea duela, baina ez betebeharra. SMG ez da zuk edo hirugarrenek bidalitakoaren erantzulea. SMGk ezin du bermatu (eta ez du bermatzen) erabiltzaile guztiak baldintza hauek betetzen dituztenik, eta, zure eta SMG-ren artean bezala, zure gain hartuko duzu baldintzok ez betetzeak eragin dezakeen kalte-arriskua.

SMGk gomendatzen dizu bidaltzen dituzun gauzetan ahalik eta datu pertsonal gutxien jartzea, besteek datu pertsonal horiek ikusi eta erabil baititzakete. SMG ez da bidaltzen duzun edukian biltzen duzun informazioaren erantzulea.

6. HIRUGARRENEN WEBGUNEAK ETA ZERBITZUAK

Baliteke SMG zerbitzuek hirugarrenen webgune eta zerbitzuetarako estekak izatea, hala nola sare sozialetarako estekak (guztiak batera, «**zerbitzu estekatuak**»). Zerbitzu estekatuak ez daude SMGren kontrolpean, eta SMG ez da zerbitzu estekatuen erantzulea, ezta zerbitzu estekatuetan edo haien bidez jasotako informazioaren edo materialen erantzulea ere. Esteka bat jartzeak ez du esan nahi SMGk zerbitzu estekatua babesten duenik, ezta zerbitzu estekatua daramatenekin harremana duenik ere. SMGk ez ditu ikertzen, egiaztatzen edo kontrolatzen zerbitzu estekatuak. SMGk zure erosotasunerako soilik eskaintzen ditu zerbitzu estekatuetarako estekak. Zure ardurapean atzitzen dituzu zerbitzu estekatuak.

7. KONTRATUAREN BALIOZKOTASUNA, BERME-EZESPENA ETA ERANTZUKIZUNAREN MUGAK

SMGk bermatzen du SMGk behar bezala sinatu dituela baldintzok eta horretarako legezko ahalmena duela. Zuk ere bermatzen duzu behar bezala sinatu dituzula baldintzok eta horretarako legezko ahalmena duzula.

GOIAN BERARIAZ ADIERAZI EZEAN, SMG ZERBITZUAK «BEREN HORRETAN» ETA «ERABILGARRI DAUDEN MODUAN» ESKAINTZEN DIRA, INOLAKO BERMERIK GABE, BERARIAZKOA EDO INPLIZITUA.

SMGk ezin du bermatu SMG edukia zehatza, fidagarria, osoa edo egokia denik, ezta SMG zerbitzuak eta SMG edukia erabiliz lortutako emaitzak ere. Zure ardurapean erabiliko dituzu SMG zerbitzuak eta edukia. Aldizka, aldatu egiten dira SMG zerbitzuak eta SMG edukia. Edonoiz egin daitezke aldaketa horiek. Baliteke SMG zerbitzuetako eduki batzuk hirugarrenek emanak izatea. SMG ez da hirugarrenen edukiaren erantzulea.

SMG ZERBITZUAK ETA SMG EDUKIA «BEREN HORRETAN» ESKAINTZEN DIRA, INOLAKO BERMERIK GABE. LEGE APLIKAGARRIAK GEHIENEZ ONARTZEN DUEN MUGARAINO, SMG-K BERARIAZ EZESTEN DITU EDOZEIN MOTATAKO BERMEAK ETA BALDINTZAK, INPLIZITUAK ZEIN BERARIAZKOA; HAUEK BARNE: MERKATURATZEARI, HELBURU JAKIN BATERAKO EGOKITASUNARI, TITULUARI, JABETZA-ESKUBIDEAK EDO HIRUGARRENENAK EZ URRATZEARI, AKATSIK EZ EGOTEARI ETA ETENGABEKO ERABILERARI DAGOKIONAK, BAITA ENPRESA-JOKABIDEAK EDO MERKATARITZAKO ERABILERAK ERAGINDAKO BERME INPLIZITUAK ERE.

SMG-K EZ DITU HAUEK BERMATZEN: (A) SMG ZERBITZUEK ZURE BALDINTZAK BETEKO DITUZTELA; (B) SMG ZERBITZUEK ETENGABE LAN EGINGO DUTELA EDO BIRUSIK EDO AKATSIK EZ DUTELA; EDO (C) ERROREAK ZUZENDU EGINGO DIRELA. SMG ZERBITZUAK EDO SMG EDUKIA ERABILTZEAREN ONDORIOZ EKIPAMENDUA LORTU EDO ORDEZTU BEHAR BADUZU, EDO MOZKINAK EDO DATUAK GALTZEN BADITUZU, SMG EZ DA IZANGO KOSTU HORIEN ERANTZULEA. SMG-K EDO HAREN AGENTE BAIMENDUNEK AHOZ EDO IDATZIZ EMATEN DITUZTEN AHOLKUAK EZ DIRA HARTZEN BERMETZAT, ETA EZ DIRA HALAKOTZAT HARTUKO. JURISDIKZIO BATZUEK EZ DUTE UZTEN BERME INPLIZITUAK BAZTERTZEA; HORTAZ, BALITEKE SALBUESPEN HORIETAKO BATZUK EDO GUZTIAK ZURI EZ APLIKATZEA.

ZURE ARDURAPEAN ERABILIKO DITUZU SMG ZERBITZUAK. Ez bazaude pozik SMG zerbitzuekin (tartean, SMG zerbitzuetako edukia), SMG zerbitzuak erabiltzeari uztea beste aukerarik ez duzu.

ONARTZEN DUZU EZEIN KASUTAN SMG EDO SMG ZERBITZUETAN AIPATUTAKO HIRUGARRENENAK EZ DIRELA IZANGO HAUEN ERANTZULE: (A) ERA GUZTIETAKO KALTEAK, HALA NOLA ZUZENAK, ZEHARKAKOAK, BEREZIAK, ZENTZAGARRIAK, USTEKABEKOAK, ONDORIOZKOAK, ZIGORTZEKOAK, ETAB. (BESTEAK BESTE, ORDEZKO PRODUKTUAK EDO ZERBITZUAK ESKURATZEA; ERABILERA, DATUAK EDO MOZKINAK GALTZEA; EDO NEGOZIOA ETETEA), EDONOLA GERTATUTAKOAK ETA HAIEN ERANTZULEA EDOZEIN DELA ERE, BALDINTZA HAUETAN EZARRITAKOARI JARRAIKIZ EDO SMG ZERBITZUAK ETA HAIEN EDUKIA ERABILTZEARI EDO EZ

ERABILTZEARI JARRAIKIZ, BERMEAN, KONTRATUAN, ERANTZUKIZUN ZIBIL OBJEKTIBOAN, LAIDOAN (HALA NOLA ZABARKERIA) EDO BESTE EDOZEIN TEORIA LEGALETAN OINARRITUTA, NAHIZ ETA SMG-K KALTE HORI GERTATZEKO AUKERAREN BERRI IZAN; EDO (B) BESTE EDOZEIN ERREKLAMAZIO, ESKAERA EDO KALTE, SMG ZERBITZUAK ERABILTZEAREN ONDORIOZ EDO HAIEK ERABILTZEARI LOTUTA SOR DAITEZKEENAK. ERANTZUKIZUNAREN SALBUESPEN HAU EZ ZAIO APLIKATZEN ZABARKERIA LARRIAREN EDO JOKABIDE MALTZURRAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNARI, ETA EZ ZAIO APLIKATUKO LEGE APLIKAGARRIAK DEBEKATZEN DUEN HEINEAN.

EDOZEIN ARRAZOIRENGATIK 7. ATAL HONETAN BILDUTAKO BERME-EZESPENA ETA ERANTZUKIZUNEN MUGAK APLIKAGARRIAK EZ BADIRA EDO EZIN BADIRA INDARREAN JARRI, SMG-REN ERANTZUKIZUNA GEHIENEZ 1.000 \$-ekoa IZANGO DA KALTEA EDOZEIN DELA ERE.

Aitortzen eta onartzen duzu erantzukizunen muga horiek, baldintza hauetan ageri diren eta erantzukizuna mugatzen duten gainerako xedapenekin batera, funtsezko baldintzak direla eta SMGk ezin dizkizula baldintza hauetan adierazitako eskubideak eman erantzukizunen muga horiek onartzen ez badituzu.

KALIFORNIAN BIZI BAZARA, UKO EGINGO DIEZU KALIFORNIAKO KODE ZIBILAREN 1542 ATALEAN ADIERAZITAKOARI LOTUTA DITUZUN ESKUBIDEEI. ATAL HORREN ARABERA, «ESKUBIDE BATI UKO EGITEA EZ DA HEDATZEN UKOA GAUZATZERAKOAN HARTZEKODUNAK EZAGUTZEN EZ DITUEN EDO SUSMORIK ERE HARTZEN EZ DIEN ALDEKO ERREKLAMAZIOETARA. HAIEN BERRI IZANEZ GERO, ZORDUNAREKIN ADOSTU BEHARKO DU HAIEK NOLA ORDAINDU».

8. KALTE-ORDAINKETA

Onartzen duzu kalte, erantzukizun, erreklamazio, ekintza edo eskaera orotik babestu, indemnizatu eta salbuetsiko dituzula SMG eta haren bezeroak, zuzendariak, ordezkariak, langileak eta agenteak, zure kontura; besteak beste, hauetatik: diruzko kalteak, gastuak, defentsa-kostuak (esaterako, abokatuen zerbitzu-sariak eta kontabilitateko gastuak), hirugarrenek SMGri helarazitakoak hauetako baten ondorioz: (a) zuk egindako bidalketak, (b) zuk erabilitako SMG zerbitzuak, edo (c) baldintza hauen, hirugarrenen eskubideen edo lege aplikagarriaren urraketa. Kalte-ordainketari buruzko xedapen hau ez da aplikatzen lege aplikagarriak debekatzen duen heinean. SMGk eskubidea izango du, bere kontura, kalte-ordainketa aplikagarria zaion edozein gairen berariazko defentsa eta kontrola bere gain hartzeko. Aurretik SMGren idatzizko baimena jaso ezean, ezin da egin SMG-ren eskubideetan edo betebeharretan eragina duen ordainketarik.

9. GATAZKEN KONPONKETA

Jabetza intelektualeko eskubideekin edo betebeharrekin erlazionatutako gatazkak, edo lege-urratzeekin erlazionatutako erreklamazioak, AEBko lege federalen pean geratuko dira. Aldiz, baldintza hauekin zerikusia duten zure eta SMGren arteko gatazkak Missouri estatuko (AEB) legeen pean geratuko dira, eta haien arabera interpretatuko, zure jatorri-herrialdea edo zerbitzuak nondik atzitzen dituzun aintzat hartu gabe eta lege-printzipioen inguruko gatazkak gorabehera. Gatazka horiek guztiak Missouri estatuan sinatzen eta gauzatzen diren kontratuei aplikagarriak zaizkien Missouri legeen pean interpretatuko dira. Zuk eta SMGk onartzen duzue Produktuak Nazioartean Saltzeko Kontratuei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa ez dela aplikatzen baldintza hauek interpretatzean edo prestatzean.

ZUK ETA SMG-K ONARTZEN DUZUE BANAKO GISA SOILIK AURKEZTU AHAL IZANGO DITUZUELA ELKARREN AURKAKO ERREKLAMAZIOAK, ETA EZ AUZI-JARTZAILE EDO BATERAKO KIDE GISA AUZI EDO PROZEDURA KOLEKTIBO EDO ORDEZKARITZAKOAN.

ZUK ETA SMG-K ONARTZEN DUZUE ERREKLAMAZIO GUZTIAK ARBITRAJE LOTESLE BIDEZ EBATZIKO DIRELA, 9. ATALEAN ZEHAZTUTAKO MODUAN, ETA ZUK ETA SMG-K UKO EGITEN DIOZUELA ERREKLAMAZIO HORIEK JUSTIZIA-AUZITEGIETARA ERAMATEKO ESKUBIDEARI. ARBITRAJEA DAGOENEAN, AGIAN EZ DITUZU IZANGO AUZITEGIETARA JOANEZ GERO IZATEN DIREN ESKUBIDEAK (ADIBIDEZ, MURRIZTAPENIK GABEKO SARBIDEA), EDO AGIAN MUGATUTA EGONGO DIRA.

Baldintza hauek eta haiek interpretatzearen ondorioz edo haiekin erlazionatuta, edo haiek urratu edo etetearekin edo haien baliozkotasunarekin lotuta, eta baldintza horietatik sortzen diren harremanen harira zure eta SMGren nahiz haren agente, langile, ordezkari, zuzendari, ondorengo, esleitutako, filial edo bazkideen artean sortzen diren gatazkak, tartean baldintzek arbitrajearen duten baliozkotasunari, eragin-eremuari edo aplikagarritasunari lotutako gatazkak (guztiak batera, «**estalitako gatazkak**»), arbitraje loteslearen pean geratuko dira Missouriko estatuan, Ameriketako Arbitraje Elkartearen (AAA) esanetara, dagokion datan indarrean dituen arauak jarraikiz (kontsumitzaileekin erlazionatutako gatazken arauak eta prozedurak barne). Arbitrajeari ekin aurretik, ekingo dion alderdiak gutxienez 60 egun lehenago jakinaraziko dio idatziz beste alderdiari arbitrajea martxan jartzeko asmoa duela. SMGk posta elektronikoz bidaliko dizu jakinarazpen hori, kontua sortu zenuenean eman zenuen helbide elektronikora, edo SMGri adierazi diozun beste helbide elektronikoa batera; aldiz, zuk privacyofficer@smg.com helbidera bidali behar diozu SMGri jakinarazpena.

AAren arauak jarraikiz ordainduko dira izapidetze-, administrazio- eta arbitraje-gastu guztiak. Hala ere, auzi baten kostuekin alderatuta arbitraje-kostuak oso garestiak direla frogatzen badezakezu, arbitroak egoki deritzen izapidetze-, administrazio- eta arbitraje-gastu guztiak ordainduko ditu SMGk, arbitrajea zuzentzat garestiegia izan ez dadin. Arbitroak pentsatuz gero arbitrajearen egin dituzun erreklamazioak azalekoak direla, AAren arabera zure kontura liratekeen eta SMGk zure izenean ordaindu dituen arbitrajearen lotutako gastuak itzuli egin beharko dizkiozu SMGri.

Arbitro bakar bat hautatuko da AAren Merkataritzako Arbitraje Arauen arabera. Ingelesean egingo da arbitrajea. Arbitroak ahalmena izango du legez edo ekitatez auzitegian emango litzatekeen laguntza emateko, eta arbitroaren erabakia behin betikoa eta loteslea izango da alderdi guztientzat; jurisdikzio eskuduneko auzitegieetan epai gisa har liteke. Hala ere, arbitroak ez du izango ahalmenik kalte-ordain zigortzaileak edo zentzagarriak emateko; alderdiek uko egingo diote horretarako eskubideari. Arbitroak lege aplikagarria eta baldintza hauetako xedapenak aplikatuko ditu; hala egin ezean, arbitroaren agintekieriaz hartuko da, eta epaileak berrikustea eragin dezake. Arbitroaren erabakia idatziz azaldu behar da, eta isilpean gorde. SMGk eta zuk onartzen duzue estalitako gatazkak banakoen izenean soilik jarriko direla arbitrajepean. **EZ SMG-K EZ ZUK EZ DUZUE ESKUBIDERIK ESTALITAKO GATAZKAK TALDEREN BATEKO KIDE EDO ORDEZKARI GISA EDO ABOKATU PRIBATU BATEN BIDEZ ARBITRATZEKO, ETA ARBITROAK EZ DU AHALMENIK IZANGO TALDEREN BATEKO KIDE EDO ORDEZKARI GISA EDO ABOKATU PRIBATU BATEN BIDEZ JARDUTEKO.** 9. atalean aipatzen diren arbitratzeko hitzarmeneko xedapenetakoren bat aplikagarria ez dela ikusten bada, xedapen aplikaezina kendu egingo da, eta gainerako arbitraje-baldintzak aplikatuko dira (baina ez da inoiz egingo arbitrajerik talderen bateko kide edo ordezkari gisa edo abokatu pribatu baten bidez). Nahiz eta estatutu edo legeren batek

kontrakoa esan, baldintza hauen ondorioz edo haiekin lotuta erreklamazioen bat jartzen bada, hura jarri eta gehienez urtebeteko (1) epean eman behar da haren berri; bestela, betiko baztertuko da. 9. atal honen helburuetarako, baldintza hauek eta erlazionatutako transakzioak AEBko Kodeko 9. atalaren pean egongo dira (Arbitraje Lege Federala —FAA—, 1-16 art.).

Oharra: Baldintza hauek onartzen badituzu, berariaz onartuko duzu AEBtik kanpoko jurisdikzioetako legeen arabera SMGren aurka izan zenitzakeen erreklamazioei edo auziei uko egitea (besteak beste, zure herrialdeko legeen arabera erreklamazioei edo auziei), eta gatazkak AEBn soilik argitzea, eta AEBko legeei jarraituz, 9. atal honetako baldintzen arabera.

10. SARIAK

Baliteke noizean behin SMGk sariak lortzeko aukera ematea; esaterako, puntuak, deskontuak eta eskaintza bereziak (guztiak batera, «**sariak**»). Jakinarazpen bat bidaliko dizugu SMG zerbitzuen bidez sariak eskuragarri daudenean. Sariak era askotakoak izan daitezke, baita haien balio-aldia ere; hortaz, irakurri sari bakoitzaren xehetasunak jasotzen duzunean. SurveyMini aplikazioari dagokionez, laurogeita hamar (90) egunez inaktibo egon ondoren, puntuak iraungi egingo dira. Zeuk bakarrik erabil ditzakezu sariak. Ezin dituzu transferitu, esleitu, saldu, salerosi edo trukatu puntuak. Non eta legeak ez duen hala eskatzen, sariak ezin dira diruagatik trukatu, ezta SMGren edo besteren promozio, eskaintza edo deskonturekin konbinatu ere. Sariak trukatu ondoren ez da emango krediturik, ezta itzulketarik egingo ere. SMG-k eskubidea izango du sariak aldatzeko, amaitzeko edo bertan behera uzteko. Onartzen duzu SMGren erabakien esanetara egongo zarela; erabaki horiek behin betikoak dira, eta lotesleak sariekin erlazionatutako orori dagokionez.

11. MUGIKORRETARAKO APLIKAZIOEN EGUNERATZEAK

Baliteke noizean behin (nahierara) mugikorretarako aplikazioetarako eguneratzeak garatzea eta eskaintzea. Eguneratze horien bidez, aplikazioak bertsio-berrituko ditugu, akatsak konponduko, adabakiak egingo, bestelako erroreak konponduko, edo eginbideak gehituko (guztiak batera, «**eguneratzeak**»). Baliteke eguneratze horien bidez eginbide eta funtzio jakin batzuk osorik aldatzea edo ezabatzea ere. Onartzen duzu SMGk ez duela betebeharririk eguneratzeak eskaintzeko edo eginbide edo funtzio jakin batzuk ematen edo gaitzen jarraitzeko.

Zure gailu mugikorraren ezarpenetan oinarrituta, gailu mugikorra Internetera konektatuta dagoenean, hauetako bat gertatuko da: (a) eguneratzeak automatikoki deskargatu eta instalatuko dira; edo (b) agian ohar bat jasoko duzu eguneratzeak deskargatzeko edo instalatzeko, edo hori egiteko eskatuko zaizu.

Deskargatu eta instalatu bizkor eguneratze guztiak. Hala egiten ez baduzu, baliteke SMG zerbitzuen zati batzuek behar bezala ez funtzionatzea. Halaber, onartzen duzu eguneratze guztiak SMG zerbitzuen parte gisa hartuko direla, eta baldintza hauetako zehaztapen eta baldintza guztiak aplikatuko zaizkiela.

12. KONTRATAZIO ELEKTRONIKOA

SMG zerbitzuak erabiltzen badituzu edo haietan erregistratzen bazara, gurekin hitzarmenak elektronikoki sinatzeko baimena emango diguzu.

13. MUGA GEOGRAFIKOAK EDO ESPORTAZIO-KONTROLAK

SMG zerbitzuak eta SMG edukia Missouriiko estatuan (Ameriketako Estatu Batuak) kokatuta daude, eta, nahiz eta haiek kontsultatzeko eta erabiltzeko baimena Ameriketako Estatu Batuetatik kanpo dauden pertsonak eman, aitortzen duzu, lege- edo funtzionamendu-arrazoiengatik, beharbada ezin izango dituzula SMG zerbitzuak edo SMG edukia zure

jurisdikzioan atzitu. SMG zerbitzuak edo SMG edukia Ameriketako Estatu Batuetatik atzitzen badituzu, tokiko legeak bete beharko dituzu; besteak beste, SMG edukia inportatu eta esportatzearekin erlazionatutako tokiko legeak.

Baliteke SMG zerbitzuek esportazio-kontrolako legeei men egin behar izatea herrialde jakin batzuetan; besteak beste, AEBko Esportazioen Administrazio Legeari eta haiekin erlazionatutako araei. Onartzen duzu beteko dituzula lege eta arau horiek, eta ez dituzula, ez zuzenean, ez zeharka, SMG zerbitzuak esportatuko edo kaleratuko legez edo arauz hori egitea debekatuta duten jurisdikzio edo herrialdeetara, ezta SMG zerbitzuak haien eskura jarriko ere. Halaber onartzen duzu beteko dituzula lege eta arau federal aplikagarri guztiak, eta egin beharreko izapide guztiak egingo dituzula (adibidez, beharrezkoak diren esportazio-lizentziak edo gobernu-baimenak lortu) SMG zerbitzuak AEBtik kanpo esportatu, kaleratu edo eskuragarri jarri aurretik. Horretaz gain, SMG edukia deskargatzen baduzu, onartu egingo duzu ez zaudela haiek esportatzeko debekua duen herrialde batean, eta ez zaudela AEBko Merkataritza Sailaren Eskerak Ukatzeko Taulan edo AEBko Zerga Sailaren Bereziki Izendatutako Herritarren Zerrendan jasota.

14. AEBko GOBERNUAREN ESKUBIDEAK

SMG zerbitzuak merkataritzako software informatikoa dira, Arau Federalen Kodeko 48. kapituluko 2.101 atalean ezarritakoaren arabera. Ondorioz, AEBko Gobernuako agentzia bat edo haren kontratista bat bazara, erabiltzaile baimendunei ematen zaizkien eskubideak soilik jasoko dituzu SMG zerbitzuak erabiltzeko, hauetan ezarritakoaren arabera: (a) Arau Federalen Kodeko 48. kapituluko 227.7201etik 227.7204ra bitarteko atalak, Defentsa Sailari eta haren kontratistei dagokienez; edo (b) Arau Federalen Kodeko 48. kapituluko 12.212 atala, AEBko Gobernuako gainerako baimendunei eta haien kontratistei dagokienez.

15. ZERBITZUAK AMAITZEA

Berak hala erabakiz gero, SMGk SMG zerbitzuak aldatu edo eten ditzake, edo haietarako sarbidea ken diezazuke, edo zure kontua aldatu, eten edo amai dezake, edonoiz eta edozein arrazoiengatik, eta ez dizu zertan horren berri eman; halakorik gertatuz gero, zuk edo hirugarrenek ez duzue erantzukizunik izango. Adibidez, SMGk arrazoiz uste badu adingabea zarela, baliteke zure kontua ixtea eta SMG zerbitzuetarako sarbidea kentzea, jakinarazpena bidali beharrik izan gabe. Beste adibide bat ematearren, SMGk arrazoiz uste badu informazio faltsua, osatugabea edo zehaztugabea eman duzula edo ez dituzula bete baldintza hauek edo baldintza osagarri aplikagarriak, SMGk kontua itxi diezazuke, eta SMG zerbitzuak erabiltzeko ahalmena kendu, jakinarazpena bidali beharrik izan gabe.

Onartzen duzu webguneko materialen kopiak itzuli edo suntsitu egingo dituzula hala egiteko eskatzen badizugu.

Zerbitzuak eteteak ez ditu mugatuko SMGren gainerako eskubideak edo konponbideak. Baldintza hauek gainerako guztien gainetik egongo dira berariaz, eta indarrean jarraituko dute, nahiz eta kontua itxi eta zerbitzuak aldatu, eten edo amaitu.

16. COPYRIGHT-URRATZEENGATIKO SALAKETAK

SMGk besteen jabetza intelektualeko eskubideak errespetatzen ditu. US Digital Millennium Copyright Act (“DMCA”) legean ezarritakoaren arabera erantzungo diegu ustezko

urratzeengatik oharrei; egoki denean, salaketaren arabera ustez copyrighta urratzen duen materiala kendu edo desgaituko du.

Arrazoiz uste baduzu copyrighta urratzeko moduan kopiatu dela zure lana edo jabetza intelektualeko eskubideak urratu direla SMG zerbitzuetan edo haien bidez, bidali urratzeagatik salaketa edo oharra DMCA agenteari, posta arrunt bidez (

DMCA Agent
Service Management Group, LLC
1737 McGee Street
Kansas City, MO 64108

) edo posta elektroniko bidez (privacyofficer@smg.com).

Informazio hau adierazi behar duzu jakinarazpenean:

- a. ustez urratu den eskubide eskusibo baten jabearen izenean aritzeko baimena duen pertsona baten sinadura, fisikoa edo elektronikoa;
- b. salaketaren arabera copyrighta urratu zaion lanaren identifikazioa, edo, jakinarazpen bakarrean sareko webgune bakarreko lan copyrighdun bat baino gehiago badaude, webgune horretako lan horien zerrenda bat;
- c. ustez copyrighta urratu zaion materialaren identifikazioa, copyrighta urratu duen materialarena, kendu beharreko materialarena, edo sarbidea kendu beharko litzaiokeen materialarena, eta materiala aurkitzeko zerbitzu-hornitzaileak behar duen informazio guztia;
- d. kexa jarri duen alderdiarekin harremanetan jartzeko zerbitzu-hornitzaileak behar duen informazio guztia, hala nola helbidea, telefono-zenbakia eta, halakorik izanez gero, helbide elektronikoa, kexa jarri duen alderdiarekin harremanetan jarri ahal izateko;
- e. kexa jarri duen alderdiaren adierazpen bat, non fede onez aitortzen duen copyright-jabeak, haren agenteak edo legeak ez duela baimenik eman materiala kexan aipatzen den moduan erabiltzeko; eta
- f. jakinarazpeneko informazioa zehatza dela dioen adierazpena, eta, zin faltsua egitearen zigorraren pean, kexa jarri duen alderdiak baimena duela ustez urratu den eskubide eskusibo baten jabearen izenean aritzeko.

DMCA legearen baldintzak betetzen dituzten ohar eta galderei soilik erantzungo die gure DMCA agenteak. Informazio gehiago lortzeko, joan www.copyright.gov helbidera.

17. KALIFORNIAKO BIZTANLEENTZAKO INFORMAZIOA

Kaliforniako Kode Zibilaren 1789.3 atalaren arabera, kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazio espezifikoa eman behar diegu Kaliforniako biztanleei:

- a. Service Management Group, LLC taldearenak dira SMG zerbitzuak, edo hark eskaintzen ditu (Service Management Group, LLC, 1737 McGee Street, Kansas City, MO 64108). SMGren harremanetarako telefono-zenbakia 1-800-764-0439 da;
- b. berariaz kontrakoa adierazi ezean, SMG zerbitzuek ez dute kosturik;
- c. SMG zerbitzuen inguruko kexa bat jartzeko edo SMG zerbitzuak erabiltzeari buruzko informazio gehiago jasotzeko, bidali gutun bat Service Management Group LLC taldeari (Attn: Data Protection Officer, 1737 McGee Street, Kansas City, MO 64108) edo jarri

gurekin harremanetan posta elektronikoz bidez (privacyofficer@smg.com) (gaia: «California Resident Request»). Kaliforniako Kontsumitzaileen Arazoetako Saileko Kontsumitzaileentzako Zerbitzuen Ataleko Kexak Argitzeko Unitatearekin ere jar zaitezke harremanetan, idatziz (400 R Street, Suite 1080, Sacramento, California 95814), edo telefonoz (916.445.1254 edo 800.952.5210).

18. BESTELAKO XEDAPENAK

- a. Baldintza hauek eta dagozkion webguneetan jasotako pribatutasun-gidalerroek haietan jasotako gaien inguruan SMGk eta zuk adostu duzuen biltzen dute.
- b. Baldintza hauek ingelesez prestatu dira. Hitzarmenaren ingelesezko bertsioa nagusituko da kasu guztietan. Hitzarmen honen beste hizkuntza batzuetako bertsioak informaziorako baino ez dira eta ez dira lotesleak izango ezein alderdientzat.
- c. Baldintza hauek SMGren eta zure ondorengo eta onuradunen mesederako izaten dira, eta lotesleak izango dira haientzat.
- d. SMGk baldintza hauek laga ditzake, baina zuk ezin dizkiozu laga inori SMGren idatzizko baimenik gabe.
- e. Baldintza hauetakoren bat ez bada aplikagarria edo ez badu balio, gainerako xedapenek indarrean jarraituko dute, eta ondorio berberak izango dituzte, aplikagarria ez dena edo balio ez duena erabili izan ez balitz bezala.
- f. SMGk edo zuk ez badituzue betetzen baldintza hauetako betebeharrak, eta beste alderdiak ez badu betearazten betebeharrak, ez betearazteak ez du ekarriko betebeharrak uko egitea eta ez du saihestuko haiek beste edonoiz betearaztea.
- g. Baldintza hauetan dagoen ezerk ez zaituzte bihurtuko SMG edo zu beste alderdiaren agente edo ordezkari, ezta elkartekide edo bazkide ere.
- h. Xedapen hau betearazteko eskatzen duen alderdiaren eskumenetik kanpo dagoen edozein arrazoiengatik SMGk edo zuk ezin badituzue baldintza hauetako betebeharrak bete, eragindako alderdiak atzerapen- edo ezintasun-aldia igaro arteko epea emango dio betebeharrak betetzeko.
- i. Goiburuak eta azpitoluak erabiltzaileen erosotasunerako soilik eskaintzen dira.

GALDERARIK?

Erabilera-baldintza hauei edo SMG zerbitzuei buruzko galderarik baduzu, jarri gurekin harremanetan privacyofficer@smg.com helbide elektronikora idatzita.

Gutuna ere bidal diezagukezu, helbide hauetako batera:

Service Management Group, LLC
Attn: Data Protection Officer
1737 McGee Street
Kansas City, MO 64108

®/TM trademarks © Service Management Group, LLC 2017. Eskubide guztiak erreserbatuta.